

Grekoa II

- **BATXILERGOA**
- **LANDIBE HEZIKETA**
- **GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

A AUKERA

Itzuli testu hau, eta erantzun galderei:

Lisias, *Eratostenesen heriotzaren defentsan*, 6

Eufiletoren semearen jaiotza

ἐπειδὴ δέ μοι παιδίον γίγνεται, ἐπίστευον ἤδη καὶ πάντα τὰ ἐμαυτοῦ ἐκείνη παρέδωκα, ἡγούμενος ταύτην οἰκειότητα μεγίστην εἶναι· ἐν μὲν οὖν τῷ πρώτῳ χρόνῳ, ὧς Ἀθηναῖοι, πασῶν ἦν βελτίστη.

Galderak

1. Esaldi honen analisi sintaktikoa: ἐπειδὴ δέ μοι παιδίον γίγνεται, ἐπίστευον ἤδη καὶ πάντα τὰ ἐμαυτοῦ ἐκείνη παρέδωκα.
2. Aditz honen analisi morfologikoa: ἐπίστευον. Jokatu aditz hori indikatiboko geroaldian (aktiboa).
3. Izen honen analisi morfologikoa: πασῶν. Singularreko deklinabidea.
4. Azaldu itzazu termino honen esanahia eta etimologia: παιδίον. Termino horrekin erlazioa duten gaztelaniazko eta euskarazko hitzak.
5. Oratoria grekoa: Demostenes.
6. Euripidesen *Medea*: obraren argumentua.

B AUKERA

Itzuli testu hau, eta erantzun galderei:

Apolodoro, *Epitomea* VII, 10

Odiseo Eolia uhartetik irteten da

ὁ δὲ Ὀδυσσεὺς ἐπιτηδεῖοις ἀνέμοις χρώμενος εὐπλοεῖ, καὶ πλησίον Ἰθάκης ὑπάρχων ἤδη τὸν ἀναφερόμενον ἐκ τῆς πόλεως καπνὸν ἰδὼν ἐκοιμήθη. οἱ δὲ ἑταῖροι... λύσαντες τοὺς ἀνέμους ἐξαφῆκαν¹.

Galderak

1. Esaldi honen analisi sintaktikoa: ὁ δὲ Ὀδυσσεὺς ἐπιτηδεῖοις ἀνέμοις χρώμενος εὐπλοεῖ.
2. Aditz honen analisi morfologikoa: εὐπλοεῖ. Jokatu aditz hori indikatiboko orainaldian (aktiboa).
3. Izen honen analisi morfologikoa: ἀνέμοις. Pluraleko deklinabidea.
4. Azaldu itzazu termino honen esanahia eta etimologia: πόλεως. Termino horrekin erlazioa duten gaztelaniazko eta euskarazko hitzak.
5. Epika grekoa: Homeroren *Odisea*.
6. Aristofanesen *Lisistrata*: argumentua eta obraren pertsonaia nagusiak.

¹ ἐξαφῆκαν: Pluraleko 3. pertsona indikatiboko aoristoan; aditza: ἐξαφίημι, “irten, abiatu”.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

GREKOA II

1. Grekozko testua gaztelaniara edo euskarara itzultzeari (hiztegiarekin) 0 puntutik 5era bitarteko kalifikazioa emango zaio. Hauek balioetsiko dira: testuaren esanahia ulertzea, grekoaren gramatika-egiturak ulertzea, gaztelaniaz edo euskaraz zuzen adieraztea, eta, ahal den neurrian, egitura horiei eustea itzulpenean.
2. Proposatutako esaldiaren analisi sintaktikoari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta analisisian eta itzulpenean akats bera errepikatuz gero behin bakarrik hartuko da kontuan kalifikazioa jaisteko.
3. Aditz-morfologiaren galderari 0 puntutik 0,5era bitarteko balorazioa emango zaio; 0,25eraino morfologia-analisi zuzena egiteagatik, eta 0,25eraino proposatutako formak jokatzegatik.
4. Izen-morfologiaren galderari 0 puntutik 0,5era bitarteko balorazioa emango zaio; 0,25eraino morfologia-analisi zuzena egiteagatik, eta 0,25eraino eskatzen den deklinabidea idazteagatik.
5. Lexikoari buruzko galderari ere 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; 0,5eraino proposatutako hitzaren etimologia eta esanahia emateagatik, eta 0,5eraino hitz horrekin erlazioa duten gaztelaniazko edo euskarazko hitzak (lau, gutxienez) aipatzeagatik.
6. Greziari eta haren ondareari (greziar literatura) buruzko galderari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; 0,5eraino literatura-generoaren oinarri nagusiak azaltzeagatik, eta 0,5eraino proposatzen den egile edo gaiari buruz idazteagatik.
7. Irakurtzeko proposatutako obrei buruzko galderari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; puntuazioak obrak benetan irakurri diren ala ez islatuko du.